

## PRENTSA OHARRA

### 2014ko Gabonak bertan dira Guggenheim Bilbao Museoa

**Guggenheim Bilbao Museoa Gabonen hasiera ospatuko du abenduaren 15ean, astelehenean, ohiko Museoaren Lagunentzako atea zabalik jardunaldiaz**

Astelehenean, abenduaren 15ean, irekita egongo da Museoa **Lagunentzako, atea zabalik jardunaldia** baita. Horrela hasiera emango zaio Gabonetako jardueren egitarauari, publiko ororentzako jarduerak eta ekitaldiak beteta egongo denari. Museoaren Lagunak 15.000 pertsona baino gehiago dira, eta jardunaldirako antolatutako jarduerak gozatzeko aukera izango dute 16:00etatik 20:00etara.

Interesatutako Lagunek artelan ikusgarrien **instalazio- eta manipulazio-prozesuak** ezagutzeko aukera izango dute, tartean, Sol Lewitt-en horma-irudia eta Kiefer-en, Kounellis-en eta Chillidaren artelanak; bisitaldia 16:00etatik 18:00etara izango da eta nahitaezkoa da aurretik erreserba egitea. Ordu horretan ere, Lagunen beste talde batek publikoarentzat itxita egon ohi diren guneak ikusteko aukera izango du, besteak beste, **klimatizazio-eremua, suaren aurkako babes sistema eta argiztapen atala**. Horrez gain, Erregistro eta Artapen Arloak bisitatzeke aukera ere izango da, sailtako profesionalen eskutik, eta, halaber, *Gure garaiko artea*. *Guggenheim Bildumen maisulanak* erakusketara **gidaridun bisitaldia** egiteko.

Helduek eta 4 urtetik gorako haurrek La Mar de Marionetas konpainiaren *Picasso por los pelos* txotxongiloen ikuskizunaz gozatu ahalgo dute. Pablo Picassoren eta haren bizargin Eugenio Ariasen arteko adiskidetasunaren gaineko istorio kutuna, gertaera errealak oinarri dituenak, antzetzeko dute. Bizarginak eta artistak elkar ezagutu zuten Parisen eta konfidentziak partekatu zituzten; gainera, Picassok marrazkiak, lan grafikoak, zeramikak eta beste objektu batzuk oparitu zizkion Ariasi. 1972an artista zendu zen, eta Ariasek Picassoren obrari eta elkarren arteko laguntasunari omenaldia egiteko Museo bat irekitzea erabaki zuen. Ikuskizuna 18:00etan izango da, Museoko Entzugelan.

Jardunaldiari amaiera emateko, 19:15ean, **Mocedades** talde historikoak, duela 46 urte Bilbon sortu zenak, betiko kantuen aukeraketa bat abestuko du Museoko Atrioan. Taldearen kide dira gaur egun Javier Garay, Luis Hornedo, Begoña Costa, Aitor Melgosa eta Iciar Ibarrondo, eta Lagun askori hainbat belaunaldirentzat zirrargarriak izan diren kantuak gogoraraziko dizkiete.

Atea zabalik jardunaldian, **galdera-lehiaketa** batean parte hartzeko aukera ere izango dute Lagunek. Galderak ondo erantzundakoen artean honakoak zozketatuko dira: **bi pertsonarentzako afarria** Bistró Guggenheim Bilbao jatetxean, IXO taldearen eskaintzari esker, **illy kapsula bidezko kafe-makina (X7 modeloa)** eta **zazpi Nikon prismatiko**, Ernesto Netori eskainitako erakusketan egondakoak. Horrez gain, edariaren dastatzea eskainiko dute **Coca-Colak** eta **illycaffè**.

Azkenik, **erakusketen katalogoak** erosten interesa duten Lagunek, horietako batzuetan %50erainoko beherapena izango dute.

Jardueren ordutegien eta bestelako argibideak Museoaren webgunean:

<http://www.guggenheim-bilbao.es>

Bilbon, 2014ko abenduaren 12an